

COVID-19 NEWSLETTER

AEBak 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena (NDF)
% -5,9 2020an eta % 4,8 2021ean


Inflazioa 2020ko apirilean
% 0,7


Zerbitzuetako / Industriako PMI Indizea maitzean
36,9 / 39,8
(apirilean 26,7 eta 36,1 hurrenez hurren)


Langabezia tasaren aurreikuspena apirilean
% 14,7
Maitzean % 20 (Goldman Sachs-ek eginiko kalkulua)
40 milioi lagun langabezia daude martxoaren erdialdetik


Tipo USD/EUR kanbio-tasa ekainaren 2an: 0,90 euro

Inpaktua sektore industrialetan

 **Automozioa**
Ibilgailuen salmentak % 50 gutxitu ziren apirilean. Maitzean zertxobait suspertu ziren, beherakada txikiagoa izan zelako (% 32). Pandemiak Mexikon duen bilakaeraren zain daude, Mexiko baita sektorean duten bazkide garrantzitsuena


 **Aeroespaziala**
Boeing eta Airbus lantegietan etenda dago ekoizpena. Maitzean hasiko dira berriro irekitzen


 **Energia - Berriztagarriak**
Altxor Sailak PTC/ITC kreditu fiskalen epeak luzatzeko asmoa du

 **Energia - Oil & Gas**
Energia eta Altxor Sailak sektoreari laguntzeko plan bat prestatzen ari dira, une honetan eraldaketa beteak baitago gehiegizko eskaintzagarriak eta prezioen beherakadagarriak

Manufaktura orokorra
Maitzean lehen suspertze-zantzuak antzeman ziren eta konfiantza handitu zen. Manufakturako PMI indizea % 43,2ra iritsi zen, apirilean baino % 1,6 gehiago (% 41,5). Hain zuzen, apirilean jaitsi zen lehenengoz indizea 131 hilabetez jarraian hazi ondoren

Inpaktua zerbitzuetan


 **Ostalaritza sektorea, turismoa eta entretenimendua**
Establezimenduak berriz irekitzen hasi dira ia herrialde osoan, baina ikusi beharko da zein den kontsumitzaileen konfiantza-maila

 **Garraio publikoa**
25 mila milioi dolar jarriko dira garraio publikoko sistema finantzatzeko. APTak laguntza gehigarriak eskatu dizkio Kongresuari



Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Interes-tasak: pixkanakako murrizketa, % 0 - % 0,25era iritsi arte
- ❖ Merkatuak: S&P 500 Indizea: % -10,5 (urte hasieratik hona)



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Erreserba Federala

- ❖ Interes-tasak % 0 - % 0,25eraino murriztuko dira
- ❖ Likidezia mantentzeko ekintzak: gobernuaren bonuak erostea eta maileguak egitea estatuei, finantza erakundeei, enpresei nahiz partikularrei

Gobernu federalaren maileguak eta dirulaguntzak



- ❖ 1. pakete fiskala (martxoak 6): **8,3 mila milioi \$** estatuentzat eta agentzia federalentzat
- ❖ 2. pakete fiskala (martxoak 18): elikadurarako subsidioak, baja ordainduak, langabezia eta kredituak
- ❖ 3. pakete fiskala, handiena (martxoak 27): CARE ACT, **2,2 bilioi \$**
 - **Small Business Payment Protection Program (PPP)** sortu da: mailegu barkagarriak ETEetako nominak ordaintzeko (350 mil milioi \$ - agortuta)
 - **Economic Injury Disaster Loan Program (EIDL)** zabaldu da: larrialdietarako maileguak interes baxuekin ETEentzat, Small Business Administration delakoak kudeatuak
 - Dirulaguntzak eta laguntzak osasun sektorerako, segurtasun nazionalerako eta aire-konpainientzako
- ❖ 4. pakete fiskala (apirilak 24): **484 mila milioi \$**
 - 310 mila milioi gehiago injektatu zaizkio PPP-ri. Funtsak oso azkar eskatu dira eta hirugarren zabalkuntza bat egitekotan daude
 - Ugaritu egin dira larrialdietarako kredituak eta ospitaleentzako eta testak fabrikatzeko laguntzak

Ez da espero beste laguntza-sortarik uztailera arte

Partikularrentzako eta familientzako laguntzak



- ❖ Elikadurarako subsidio eta laguntzak
- ❖ Herritarrentzako zuzeneko ordainketa: 250 mila milioi US\$
1.200 dolar gehienez heldu bakoitzeko eta 500 \$ seme-alaba bakoitzeko (urtean 99.000 dolar baino gutxiagoko soldatak dituztenentzat)
- ❖ Gaixotasunagatiko eta larrialdietarako baja ordainduak gaixoak eta adin txikikoak zaintzeko
- ❖ Zabaldu egin da langabeziagatiko aseguruak
- ❖ Atzeratu egin dira errentaren gaineko zerga aitortpena eta Gizarte Segurantzako ordainketak egiteko epeak



MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ **Errepide bidezko merkatu-gaien garraioak** behera egin zuen martxoaren erditik aurrera, baina egonkortu egin zen apirilaren bigarren astean. Harrezkero, garraiatutako bolumenak egonkor mantendu dira
- ↓ **Aireko, itsasoko eta burdinbideetako garraioak** behera egin du. Herrialde barruko hegaldi kopurua eta tren-zerbitzuak izugarri murriztu dira, baina badaude gutxieneko zerbitzuak. Aire-konpainiek hegaldietan bete beharreko arau berriak argitaratu dituzte: maskarak eta distantziak. Hegaldiak goraino bete dira eta ez dira neurri horiek errespetatu, eta horrek hainbat kritika sortu ditu

Biztanleriaren mugikortasuna

- ✚ Martxoaren 19an, Estatu Departamenduak 4. mailara igo zuen mundu mailako bidaien alerta, honako gomendio hauek eginez:
 - ! **Ez bidaiatu behar-beharrezkoa ez bada eta atzerrian bizi diren hiritar estatubatuarrak itzul daitezela lehenbailehen etxera**
Baliteke alerta hau urte bukaeraraino luzatzea
- 50 estatu berriekiera prozesuan murgilduta daude une honetan:
 - Baina desberdintasun handiak daude estatu, barruti eta hirien artean
 - Gobernu federalaren ardura da krisia kudeatzea eta jarraibide orokorrak finkatzea
 - Gobernadoreek berriekierari eta baliabideen kudeaketari buruzko erabakiak hartzen dituzte (probak, ospitaleak)
 - Tirabirak daude maila federalean eta estatuen artean berriekiera desberdin kudeatzen ari delako

Mugetako egoera

- ! Txina, Iran eta Europako zenbait herrialdeetatik (Espainia barne) datozen **atzeritarrek debekatuta dute sarrera** martxoaren 11tik. Brasil zerranda horretan dago maiatzaz geroztik eta herrialde horietatik datozen atzeritarrak ezingo dira sartu indarreko bisatuak edo lan-baimenak badituzte ere.
- Akordio bat lortu zen Kanada eta Mexikorekin, oinarrizkoak ez diren mugaz bestalderako bidaia guztiak mugatzeko. Maiatzaren 19an iragarri zen ekainaren 21era arte luzatuko dela akordio hori
- AEBetan dauden **Espainiako hiritarrak** (eta Espainian bizi direnak) **Estatura itzul daitezke** edozein unetan, baina Europako beste hiriburu batzuekiko konexioak erabiliz, ez baitago hegaldi zuzenik
- Apirilaren 20an, Trump presidenteak iragarri zuen **bertan behera utziko zuela aldi batez AEBetaranzko immigrazioa**, Estatu Batuetako hiritarren lanpostuak babesteko xedez. Horretarako, 60 egunez eten diu bizileku-baimenak edo *Green card* direlakoak emateko baimenak. Neurri horrek ez du eraginik aldi baterako bisatuetan